

EDITORIALA

Administrazio Orokorrean egonkortasunik ez

Iragan astean ELAk mobilizazioak egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen eskubideen alde eta lanpostuen egonkortasuna exijitzeko. Administrazio honetako langileei Madriletik ezarritako murrizketa guztiak aplikatu dizkio Eusko Jaurlaritzak azken 7 urteetan (soldata murrizketa eta izozteak, 2012ko aparteko pagaren lapurreta, gaixoaldien soldata zigorra...) eta Eusko Jaurlaritzak berak erabakitako murrizketa propioak aplikatu dizkie, jubilazio primen etena esaterako. Hau gutxi balitz, Madrilek murrizketak atzera botatzeko aukera eman duenean ere, Eusko Jaurlaritzak bere langileei murrizketa horiek aplikatzen jarraitzea erabaki du, 2012ko aparteko ordainsaria edota Itzარი pensio planerako ekarpenen kasuan esaterako.

Enpleguaren egoera onartezina da, urte askotan zehar Eusko Jaurlaritzak aurrera eramandako kudeaketa desegoki baten eta behin-behinekotasunean oinarritutako enplegu publiko prekarioaren aldeko erabaki politikoaren erakusgarri: behin-behinekotasuna %35etik gorakoa da Administrazio honetan; hau da, 2.000 behin-behineko baino gehiago daude, emakumeak gehiago gizonak baino. Gehienek 5, 10, 15 edo 20 urte darabazate prekariedade egoera honetan, Jaurlaritzak LEPIk ez duelako egin nahi izan 20 urtetan. Langile finkoek ere ez dute promoziorako eskubiderik izan urte guzti hauetan, beraien ikasketen mailako lanpostuetara sartzeko aukera ukatu zaielarik. Hau gutxi balitz, gero eta zabalagoa da kanporatzen diren zerbitzuen zerrenda, azpikontratutako enpresa hauen etekinak bertoko langileen lan baldintzen eta eskaintzen den zerbitzuen kalitatearen kontura lortzen direlarik sistematikoki.

Heldu da unea egoera honi amaiera emateko, lan hitzarmenak betez murrizketak atzera bota, eta behin-behineko enplegu prekarioarekin amaitzeko. Horrela soilik bermatu ahal izango ditugu kalitatezko zerbitzu publikoak.



#EmanBostekoak!
Garaipenari!

El Parlamento Vasco desprecia la representación de ELA en la elección del Consejo de Administración de EITB

“QUIEREN CASTIGAR NUESTRA INDEPENDENCIA POLÍTICA”

El Parlamento Vasco ha excluido a ELA del Consejo de Administración de EITB, una decisión que en opinión de Igor Eizagirre, responsable de ELA-Gizalan, es un ataque a la independencia política de nuestro sindicato.

-ELA se ha vuelto a quedar fuera del Consejo de Administración de EITB para los próximos cuatro años. ¿Qué lectura haces?

-La primera y más evidente es que es una decisión contraria a la realidad democrática del ámbito sindical. La ley otorga al Parlamento Vasco la potestad de elegir los 19 miembros de dicho Consejo de Administración, estableciendo que al menos cuatro de esas personas deben ser propuestas por entidades sociales y culturales, entre las que figuran expresamente los sindicatos.

Pues bien, los grupos parlamentarios se han repartido más o menos proporcionalmente 15 de esos miembros (5 de EAJ-PNV, 3 de EH Bildu, 2 de Elkarrekin-Podemos, 2 de PSE-EE y 2 de PP), y se han puesto de acuerdo (hace falta el 66% de los votos para elegir el Consejo de EITB) en otorgar los cuatro restantes a Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, EKA (Asociación de Consumidores) y al sindicato LAB.

Una vez más todos los partidos políticos del Parlamento Vasco han acordado excluir al sindicato mayoritario de la CAPV (con más del 40% de la representación) por cuarta ocasión consecutiva. Es muy triste ver como se reparten los cargos en un pacto opaco y como se otorga a LAB, por segunda vez consecutiva, la representación en el Consejo de Administración de EITB.

-¿Por qué crees que ha vuelto a suceder?

-Por cuarta vez consecutiva nuestra candidatura ha sido excluida para imponer un reparto arbitrario y sin motivación confesable. Solo le encuentro una explicación a esa actitud: castigar la autonomía política de este sindicato. Ha pasado lo mismo que las tres últimas veces. Al igual que en las votaciones de 2006 (UGT), 2009 (CCOO) y 2013 (LAB), en esta ocasión los partidos políticos han hecho gala de una actitud muy poco democrática, alcanzando en los despachos un pacto que, en relación al veto a ELA, no pueden explicar públicamente. Y al igual que hace cuatro años, LAB ha sido el beneficiado del veto establecido a nuestra organización.

Este reparto de cargos invade, sin la necesaria legitimidad democrática, el ámbito de la representación en el mundo del trabajo, donde es la clase trabajadora vasca quien decide la representación de cada sindicato. Por ejemplo, en las fechas de las sucesivas elecciones del Consejo de EITB, la representación mayoritaria de ELA en la CAPV era del 40,69% (en 2006), el 40,18% (en 2009), el 39,67% (en 2013) y el 40,35% (en 2017).

-¿Y ahora, qué?

-Lo primero es exigir al Parlamento Vasco que invalide la elección del Consejo de Administración de EITB por ser con-



traria a la realidad democrática del ámbito sindical. No pretendemos para ELA la representación exclusiva y permanente en dicho órgano, ni mucho menos, pero es inaceptable que la exclusión de ELA se haya convertido en costumbre por parte de la clase política vasca, además, sin excepciones.

Por todo ello, exigimos a los partidos políticos que expliquen los motivos de ese acuerdo. La motivación de un acto es parte de las garantías que permiten diferenciar un acto arbitrario de otro democrático. Y este nombramiento no se ha motivado. Este acto arbitrario es propio de la vieja política.

En este contexto es imprescindible volver a exigir la reforma de la Ley 8/1998 que rige la elección del Consejo de Administración de EITB, para establecer que el Parlamento utilice criterios de nombramiento que no choquen con la legitimidad democrática en otros ámbitos sociales o sindicales. Entre tanto, el Parlamento Vasco debe, en nuestra opinión, dejar sin efecto la asignación del representante sindical para proceder a otro nombramiento que respete los derechos democráticos de la clase trabajadora vasca.



XIV. Kongresuan eztabaidatuko diren ebazpenak gai hauek jorratzen dituzte: patriarkatuaren kontrako borroka, euskaraz lan egiteko eskubidea eta alternatiba sozial eta ekologikoa

KONGRESUKO EBAZPENAK AZTERGAI

Ponentziaren onarpena Kongresuaren puntu garrantzitsuenetakoa da. Hura da datozen lau urteetarako sindikatuaren jardunaren norabidea finkatzearen arduraduna. Baina, ponentziaz gain, Kongresuan parte hartuko duten ordezkariak Nazio Batzordeak proposatuko dituen ebazpenak ere bozkatu beharko dituzte, sindikatuarentzat estrategikoak diren gai ezberdinen inguruan ELAK duen jarrera azaltzen duten erresoluzioak. Hiru izango dira aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatu diren ebazpenak. Hala ere, ebazpenak azken unerarte aurkeztu daitezke; abaguneak hala eskatuko balu, posible da ebazpen berriak aurkeztea. Astekari honetan horietako bi jasoko ditugu –*Sindikalismo ez patriarkalaren alde. Indarkeria sexistarik ez eta Euskaraz lan egiteko eskubidearen alde. Asimilazio kulturalaren kontra*–; hurrengoan, berriz, hirugarrena: *Alternatiba sozial eta ekologikoetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu*.

SINDIKALISMO EZ PATRIARKALAREN ALDE. INDARKERIA SEXISTARIK EZ



ELAK konpromisoa hartu zuen indarkeria sexistaren auzia sindikatu barnean agerrarazteko eta agenda konfederalean sartu zuen azaroaren 25a, indarkeria sexistaren aurkako nazioarteko eguna. Honekin batera, sindikatuak bere borondate irmoa adierazi zuen gune eta egitura feministetan parte hartzeko: Hego Euskal Herriko hiriburuetan dauden Martxoaren 8ko eta Azaroaren 25eko koordinakundeak, edota Emakumeen Mundu Martxa.

Orduetik hona emakumeek pairatzen duten bortizkeria sistemiko horren esanahia berformulatu eta hedatzera jo dugu; oraindik ere hainbat izen ematen zaizkio: genero indarkeria, indarkeria sexista, bortizkeria matxista, emakumeenganako bortizkeria patriarkala...

Bortizkeria hau emakumeei eragiten zaie, emakume izate hutsagatik, gizon eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinen baitan. Arlo pribatuan gerta daiteke (etxean, bikotean...), baina baita publikoan ere (bortizkeria instituzionala, judiziala, estatu-indarkeria...). Nolanahi ere, bikotearen baitan eragindako bortizkeria baino zabalagoa da. Hain zuzen, ez gatoz bat genero-bortizkeriaren aurkako lege organikoarekin (LO 1/2004), honen eremua mugatzen baita gizon eta emakume baten artean harremanen bat izan den edo dagoen kasuetara.

Gure herriarentzako bake bila gabiltzan garaiotan, edota instituzioek eta patronalak hain maite duten *bake soziala* aipatzen delarik, bada ezinbestekoa den beste bake bat ere, baina hau ez da aipatzen, ez aintzat hartzen.

Zein da bake hori? Emakumeen bizi-tzari eta gorputzari zor zaion *bakea*, zeina derrigorrezkoa den edozein herriren garapen ekonomiko, sozial, politiko eta demokratikoa iristeko. Izan ere, munduko alde guztietan gertatzen da bortizkeria matxista. Feminizidioa mundu guztian da ezaguna, termino hau hegoaldearekin edota Mexikoko Ciudad Juarezekin lotzen dugun arren.

Arazoaren kontzientzia benetan hartu nahi badugu eta auzi honekiko konpromiso bat hartzekoak bagara, indarkeria era hau sortzen duten zergati, ondorio eta ardurak sakonago aztertu behar ditugu:

Bortizkeria matxistaren zergati edo jatorri estrukturala sistema heteropatriarkal delakoan datza, zeinak gizonen generoa emakumezkoaren gainetik kokatzen eta hierarkizatzen duen, eta heterosexualitatea lehenesten duen, beste hautu sexualen gainetik. Honek ezartzen du indarkeria sexistaren oinarria, zeina sistema horrek sortu dituen menpekotasun eta botere harremanak iraunarazteko baliatzen den.

Bortizkeria litzateke emakumea menpean edukitzeko eta betiko genero-harreman eta -identitateak mantentzeko sistema horren adierazpenik agerikoena eta latzena. Beraz, bortizkeria estrukturalaz ari gara, gizartean duen eragina partikularizatzeko eta erlatibizatzeko joera dagoen arren.

Indarkeria hau ez da bakarra, ez eta beti itxura berekoa ere; gure jendartea egituratzen duen bortizkeria multzo bat da, gauzen ordena naturala balitz bezala. Horrela gizon eta emakumeen arteko desberdintasun estrukturalak

eta ordena heteropatriarkalak indarkeria sinboliko bat sortzen dute; itxuraz ez da oldartzen, ez du hiltzen, baina bortizkeria sistemiko horrentzako ezinbesteko ongari bilakatzen da.

Ondorioak tragikoak dira. Hego Euskal Herrian 2010 eta 2015 urteen artean 33 emakume hil zituzten. Sexu erasoak egunero gertatzen dira gurean ere, nahiz eta ezinezkoa den jakitea zenbat diren, gai honetan ez baitago erregistro ofizialik.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, emakumeenganako bortizkeria lehentasunezko osasun arazoa da, eta hiltzen dituzten emakumeen %70 beren bikotekideen biktima dira. Hau litzateke 16 eta 44 urte bitarteko emakumeen heriotza edo elbarritasuna eragiten duen zergati nagusia, eta kantzerrak edota trafiko istripuek baino hildako eta osasun arazo fisiko eta psikiko gehiago eragiten du.

Gainera, indarkeria sexistak ondorio ekonomiko, politiko eta sozial nabarmenak ditu, emakumeen laneratzea eta parte hartze sozial eta politikoa eragozten baitu.

Arazo estruktural honetan banako gizonen zuzen badute, noski, erantzukizuna, baina begibistakoa da ardura kolektiboak ere badirela. Honek zuzenean interpelatzen ditu erakunde politikoak, sistema judizial eta poliziala... Inpunitatea kasu askotan nagusi da, baita aitortza eta memoriaren gabezia ere. Bestalde, ezin dugu ahaztu geuk ere, *gizarte-mugimenduak* eta sindikatuak, zailtasunak izan ohi ditugula auzi honi gure agendan lehentasuna emateko.

Arazo hau lan munduan ere gertatzen da. Hor dago prekaritatearen inguruko eztabaida, *bortizkeriatzat* har daitezkeen ala ez... honi buruzko iritzi desberdinak daude (prekaritatea per se bortizkeria gisa edota bortizkeriaren zergati gisa); gauza bat argi dago: emakumeek pairatzen duten prekaritateak eta pobreziak beren menpekotasun ekonomiko eta soziala areagotzen du, eta horrekin batera indarkeria jasateko aukerak.

Halaber, aipatu beharrekoa da lan eremuan gertatzen den indarkeria sexista mota espezifiko bat: sexu-jazar-

pena, edo sexuagatik gertatzen dena. Honelako jokabideak sortzen dira botere-arazo bat dagoenean eragiten duen eta pairatzen duenaren artean. Egoera hauek sufritzen dituenak ez ditu onartzen, eta haien xedea da biktima kikiltzea, bere duintasunari erasotzea. Zailtasuna da norberak erabaki behar duela zein jokabide den onargarria. Dena dela, fokua emaitzan jarri behar da, jokabidearen intentzioa gorabehera, eta estatistikek argi erakusten dute jazarpen sexuala pairatzeko aukera handiagoa dela jazarriaren egoera ahulagoa denean edota menpekotasun handiagoa duenean.

Beraz, arazo sozial larria dugu hau. ELAK orain artekoa baino gehiago egin nahi du bortizkeria matxistaren agerpen desberdinen aurkako borrokan, eta horregatik honako konpromisoak hartu ditu bere gain:

- Sindikatuak hasi duen genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketa prozesuaren baitan kultura ez matxista landuko dugu, honako urratsekin: emakumeak ahalduzko prozesuak, gizontasun berrien sustapena edota genero-rolen dekonstrukzioari buruzko sentsibilizazioa.

- Prozedura eta estrategiak sortuko ditugu sexu-jazarpen eta sexuagatik jazarpen egoerak identifikatu eta horiei erantzuteko, hala sindikatu barnean nola lantokietan.

- Jarraipena emango diogu emakumeek pairatzen duten prekaritate laboral eta sozialaren aurkako borrokarari, haien bizi-baldintzak duintzeko asmoz. Horretarako, sektore feminizatuak antolatzea gure estrategia sindikalean funtsezkoa izango da etorkizunean ere. Era berean, zaintzarako kalitatezko zerbitzu publikoen beharra aldarrikatzen jarraituko dugu, zaintza lan erantzukidetasunean aurrera egiteko.

- Eraso edo hilketa matxistak salatu eta sozializatzeko gure konpromiso publikoa berresten dugu, mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan aktiboki parte hartuko dugularik, mugimendu berarekin sarean lan eginez.

POR EL DERECHO A TRABAJAR EN EUSKERA. CONTRA LA ASIMILACIÓN CULTURAL



El euskera es la lengua propia de Euskal Herria y parte intrínseca de nuestra identidad nacional. Se trata de una lengua minoritaria y minorizada, como tantas otras en el mundo. Y en ese aspecto el papel que desempeña el capitalismo neoliberal es el de la promoción de la homogeneización cultural, con lo que todas aquellas lenguas, actividades e iniciativas culturales que no son económicamente rentables quedan condenadas a la desaparición. El ritmo de desaparición de lenguas en el mundo es cada vez mayor, y sus hablantes pasan a engrosar las filas de las lenguas más fuertes, o sea, de aquellas que el poder legitima como lenguas hegemónicas.

Si bien es verdad que en los últimos años se han dado pasos en el camino de la normalización del euskera, igual de innegable es que vivimos un proceso de asimilación cultural. La progresiva sustitución de la lengua vasca por el español y francés es constante en todos los territorios y ámbitos, hasta el punto de no ser posible en nuestro propio país trabajar y vivir en nuestra lengua. Esta situación de minorización es consecuencia de un desequilibrio en las relaciones de poder.

Las trabajadoras y los trabajadores vascos tenemos derecho a trabajar en euskera, es un derecho básico poder vivir y trabajar en la lengua de nuestra elección. De la misma manera que reconocemos y garantizamos el derecho de las personas hablantes de las lenguas cooficiales a vivir y trabajar en su lengua, desde nuestro conocimiento de las suyas, reivindicamos el mismo tratamiento para las y los vascohablantes.

Los más condescendientes con la situación de asimilación y minorización pretenden situar los derechos lingüísticos dentro de la esfera estrictamente personal. ELA, como en el caso de otras desigualdades sociales, lo sitúa en el plano colectivo y en el contexto de una sociedad que respete todos los derechos; porque, así lo entendemos, la lucha por los derechos lingüísticos es una lucha por la igualdad y la democracia.

Los derechos lingüísticos son derechos humanos fundamentales, como los derechos de igualdad de género o de raza. La lucha por los derechos lingüísticos es, en ese sentido, una lucha por la justicia social, otra vertiente de la lucha de clases para nosotras y nosotros. ELA nació para subvertir las relaciones de poder, la lucha por la parte más débil es nuestra razón de ser, nuestro espacio es la mejora de las condiciones de vida de la clase trabajadora y la garantía de los derechos fundamentales, dentro de los cuales se cuentan los derechos lingüísticos. Además, en la construcción de un imaginario alternativo frente al capitalismo neoliberal, la lucha por una lengua minorizada refuerza los valores contraculturales de ese imaginario y da el color de la pluralidad a una sociedad gris fruto de la homogeneización.

En el camino de la igualdad es urgente que la

comunidad euskaldun se conciencie y empodere de los derechos que le asisten. Debemos asumir nuestra condición de sujetos de derechos lingüísticos, y tomar conciencia de ello, como individuos y como comunidad lingüística. No en vano, los efectos de esta sustitución cultural planificada que hemos venido padeciendo han calado hasta el punto que muchas veces ni siquiera llegamos a percatarnos de la aculturización y asimilación de las que hemos sido objeto.

La reivindicación de la igualdad trae consigo también sus exigencias, ya que sin un verdadero bilingüismo no hay igualdad. En primer término, corresponde a las administraciones tomar medidas tendentes a materializar el derecho a la igualdad, y para ello deben ponerse los recursos necesarios. Hay que tomar decisiones políticas, establecer normas y adoptar medidas eficaces, en vez de dejar los derechos lingüísticos al albedrío de cada cual.

A tenor de lo dicho, es apremiante una nueva política lingüística, que parta de la realidad sociolingüística local y basada en un amplio consenso, pero que tenga como eje el respeto de los derechos lingüísticos de todas las personas, sin admitir derechos de veto a nadie.

Una de las claves para la normalización del euskera se encuentra en el campo socioeconómico y en el mundo del trabajo. Hasta ahora los procesos de euskaldunización en este ámbito han sido, en gran medida, responsabilidad de los propios trabajadores y trabajadoras. Sin embargo, cuando hablamos de normalización, hablamos de crear condiciones apropiadas para garantizar la utilización de nuestra lengua en los centros de trabajo, de insertarla en los procesos de producción y de euskaldunizar el funcionamiento mismo del centro. Como es evidente, son muy pocos los centros de trabajo donde se haya previsto una implementación así.

En las administraciones públicas la situación tampoco es muy halagüeña. Hoy es el día en que aún no se ha garantizado a la ciudadanía el derecho a recibir los servicios públicos en euskara, así como tampoco el de las y los trabajadores del sector público a trabajar en euskera. Las altas tasas de contratación eventual que tienen las administraciones no hacen sino agravar el problema y avivar un ambiente de animadversión hacia la lengua minoritaria.

Por todo ello hemos de subrayar la necesidad de hacer una planificación que venga a garantizar la euskaldunización del mundo del trabajo, los derechos lingüísticos de las y los trabajadores, que destine recursos suficientes y que arbitre medidas eficaces.

El esfuerzo colectivo y organizado de la clase trabajadora y de la sociedad en su conjunto son imprescindibles para levantar nuestra lengua de su estado de postración. La recuperación del euskera no es responsabilidad de ELA, pero sí la normalización de su uso en el funcionamiento interno y en aquellos ámbitos que le son propios. La lucha por los derechos lingüísticos de las personas trabajadoras es, en gran parte, nuestra lucha.

Los y las hablantes de una lengua minorizada vivimos como aquellos salmones que remontan ríos siempre a contracorriente. En esa carrera de obstáculos nos encontramos con otros compañeros y compañeras de viaje (feminismo, ecologismo, LGTB, movimientos por la justicia social, sindicalismo...), lo que hace surgir una suerte de solidaridad, en tanto que compartimos un sentimiento de pertenencia a distintas minorías. Pero ese es el ámbito de actuación de ELA, el ámbito propio de una organización contracorriente como la nuestra.

Considerando todo lo expuesto, asumimos en este Congreso la responsabilidad que tenemos en este campo y de cara a los próximos años adquirimos los siguientes compromisos:

En nuestra organización interna:

- La normalización del uso del euskera debe ser un pilar fundamental de la actividad interna del sindicato. La situación de minorización del euskera ocupará un lugar más destacado en nuestro discurso, tratándolo como asunto político estructural.

- En ese proceso de normalización interna se darán pasos cualitativos. No es suficiente tomar medidas concretas y aisladas, la normalización del euskera debe formar parte de la planificación estratégica del sindicato y debe incluirse en los procesos de trabajo, en todos los ámbitos y estructuras, con fijación de objetivos y haciendo seguimiento.

- Haremos especial hincapié en que los materiales de trabajo y soportes que se creen y se diseñen en el sindicato lo sean en euskera.

En cuanto a las relaciones laborales:

- Seremos agentes activos en la defensa del derecho de las y los trabajadores a trabajar en euskera. En ese sentido se organizarán campañas de sensibilización y motivación, comenzando por las personas afiliadas y las y los delegados sindicales.

- Impulsaremos planes de euskera y medidas de promoción en los centros de trabajo, tanto en el sector privado, como en el público.

- Daremos un impulso a la normalización en la negociación colectiva y en la acción sindical, reivindicando contenidos y medidas concretas.



Maiatzaren 16an EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoan deitutako greba arrakastatsua izan zen berriz ere; maiatzaren 23a ere greba eguna izango da

“JAURLARITZAK HEZKUNTZAREN SEKTOREAK DITUEN ARAZO LARRIEI HELDU BEHAR DIE”



Xabi Irastorza, responsable de ELA en Irakaskuntza, emplaza al Gobierno Vasco a abordar los problemas denunciados en la calle por miles de trabajadores y trabajadoras, y a que no desvíe la atención al debate sobre el seguimiento de la huelga. “Tanto el masivo seguimiento de las jornadas de huelga como de las movilizaciones convocadas hasta ahora dejan en evidencia el malestar de las y los trabajadores”.

Maiatzaren 16an Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan izandako greba arrakastatsua izan zen. Martxoaren 22ko deialdian bezala jarraipena oso zabala izan zen –%80a– eta eguerdian hiriburuetan egindako manifestazioetan jendetza bildu zen. Milaka eta milaka izan ziren, berez, greba eta mobilizazioetan izan ziren langileak.

Hala ere, ELAk irakaskuntzan duen arduradun Xabi Irastorza salatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak entzungor egiten die langileen aldarrikapenei. “Milaka eta milaka gara orain arte deitutako deialdietan kalera atera eta bizi dugun egoera larria irauli behar dela aldarrikatu dugun hezkuntzako langileak. Hala ere, j arazoei aurre egin ordez, hauxe izan da Eusko Jaurlaritzaren erantzuna: gure aldarrikapenak errealitatetik kanpo daudela eta arduragabekeriak jokatzen dugula esatea”.

“Kristina Uriarte sailburuak benetako eduki eta eztabaidari ez heltzeko, grebaren jarraipenaren inguruko datuen eztabaidara desbideratu nahi du arreta. Onartezina da jarrera hori eta onartezina da langileen ordezkarien zilegitasuna bera ere kolokan jartzea”.

Irastorkak salatzen duenez Jaurlaritzak emandako datuek inola ere ez datoz bat martxoaren 22an eta atzo grebek izan zuten jarraipen zabal eta ia erabatekoarekin. Baina, gobernuak berak ematen dituen datuak aintzakotzat harturik ere, Hezkuntza Sailak premiaz aurre egin behar dion lehen mailako arazo bat daukala uste du ELAko arduradun honek.

“Hezkuntza inbertsio publikoa sortzen dugun aberastasunarekiko Europako azken muturrean dago. Hezkuntza aurrekontua 2009an baina 162 milioi euro txikiagoa da. Matrikulazio izugarri hazi den epe batean plantilak erabat mugatu dira eta 2.000 lanpostu inguru falta dira gure ikastetxeetan. Horretarako ikasle ratioak %9 igoz. 10 langiletik 4 behin-behinekoak dira, sektore batzuetan 10etik 6. Ordezkapenak ez dira egiten edo astebete pasa ondoren egiten dira. Langileen eroste-ahalmena %15 murriztu da. Baja hartzea zigortzen da. Erretiroa errazteko pizgarriak kendu dizkigute. Gure hezkuntza sistema txikitu eta espainiar gobernu eta enpresa eta finantza erakunde mesedetara jartzen dituzten hezkuntza erreformak inposatzen dizkigute. Euskalduntzea are gehiago mugatzen duten politikak ezartzen ditu Jaurlaritzak”.

LABURREAN / BREVES



● Importante seguimiento del día de huelga en gestión deportiva

ELA hace una valoración positiva del seguimiento que tuvieron las tres jornadas de huelga convocadas la semana pasada –16, 17 y 18 de mayo– en el sector de Gestión Deportiva de Navarra. El objetivo de estas movilizaciones es obligar a la patronal a que cambie de actitud y acceda a negociar un convenio digno.

● ELA firma el convenio de la industria de la madera de Navarra

ELA, primer sindicato del sector con el 40% de la representación, ha firmado el convenio de la industria de la madera de Navarra. El convenio otorga prioridad aplicativa frente a un convenio estatal, incorpora blindajes frente a la reforma laboral, aumenta a 8 años la ultraactividad y recupera la referen-

cia del IPC. ELA valora positivamente el contenido de este convenio.

● No hay transparencia en las contrataciones en Volkswagen Navarra

ELA denuncia el plan de empleo firmado por la dirección de Volkswagen Navarra y los sindicatos UGT, CCOO y CGC. En opinión de ELA este acuerdo es más de lo mismo, da continuidad al actual sistema de contrataciones, busca su perpetuación y justificación. La sección sindical de ELA en Volkswagen Navarra destaca que “la falta de transparencia conlleva corrupción, fomenta el clientelismo sindical y excluye a una parte importante de la sociedad. No recoge ni una medida para evitarlo”.

● Lan-hitzarmenaren aldeko greba Hernaniko Arcelor Mittalen

Hernaniko Arcelor Mittaleko langileek mobilizazioak hasi dituzte lan-hitzarmenaren alde; dagoeneko zazpi greba egun egin dituzte. Langileek salatzen dutenez zuzendaritzak ez dio inolako erantzunik eman negoziatzeko eskaerari.

Gauzak honela datozten asteetan mobilizazioak ugaritu egingo dira. Hernaniko Arcelor Mittalen urte eta erdi daramate lan-baldintzak berri gabe, baina zuzendaritzak ez du negoziatzeko inolako borondaterik agertu.

Bi dira langileen eskaera nagusiak: KPIrekin loturiko soldata-igoerak eta lan-erreformaren aurrean euren lan-baldintzak benetan beteko direnaren bermeak.

www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA EUSKAL SINDIKATUA 

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207